




EAEko merkataritzaren salmentak %5,3 gehitu ziren

Merkataritzako indizea
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa




Iturria: Eustat.

2022ko lehen hiruhilekoan, merkataritzako salmentak %5,3 hazi ziren aurreko urtearekin alderatuta.

Aurten lortu den maila azken hamabi urteetako altuena izan da. Gehikuntza tasa bereziki esanguratsua izan zen handizkako merkataritzan (%7,8). Beste muturrean, ibilgailu motordunen salmentak %7,3 egin zuten behera.

Zerbitzuen jarduera %13,6 handitu zen

Zerbitzuen indizea
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa



Iturria: Eustat.


Beste aldetik, zerbitzuen indizea, urte arteko tasan, %13,6 hazi zen lehen hiruhilekoan.

Bultzada sendo horri esker, indizeak aurreko bi urteetako mailak hobetu zituen eta pandemiaren aurreko zenbakietara hurbildu zen. Azpimarratzekoa da ostalaritzaren (%37,8) eta garraioaren (%20,9) bilakaera ona.



Esportazioak %21,7 hazi ziren martxo arte

Ondasunen esportazioak atzerrira
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %21,7 handitu ziren 2022ko lehen hiruhilekoan. Guztira, saldutako produktuen balioa 7.391 milioi eurokoa izan zen, hiruhileko batean inoiz erregistratu den kopururik handiena baita, baina kontuan hartu behar da hazkunde horren zati handi bat prezioen igoe-rari zor zaiola.

Atzerritarren afiliazioak gora egin zuen apirilean

Atzerritarren afiliazioa
Balio absolutua



Iturria: Gizarte Segurantza..

Apirilean, atzerritarren afiliazio kopurua %10,4 handitu zen 2021eko hileko beraren aldean. Guztira, atzerriko naziotasuna duten 76.808 pertsona daude afiliatuta, hots, Gizarte Segurantzako afiliazio guztietatik %7,8 bereganatzen dute atzerritarrek.